

AUTOEBALUAZIOA**III. MODULUA: GIHAR-BARNEKO ADMINISTRAZIOA**

1. Sendagaien gihar-barneko administrazioa:

- a) Deltoidea helduentzako lehen aukerako injekzio tokia da
- b) Zona dortsogluteoa ume goiztiarren kasuan erabiltzen da injekziorako zona bezala
- c) Injekzioa deltoidean, gluteoan, kanpo-bastean eta dorsal handian egin daiteke
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira

2. Farmakoen xurgapena gihar-barneko administrazioaren ondoren:

- a) Bakarrik barriadura pasiboz ematen da
- b) Pisu molekular baxuko farmakoak bide linfatikoz xurgatu ohi dira
- c) Administrazio zonaren menpe dago
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira

3. Gihar-barnetik administratzeko formulazioak:

- a) Disoluzio urtsuak izan behar dira ehunean zehar barriadura azkarra ahalbidetzeko
- b) Askapen luzatuko formulazioak garatzen ari dira baina gaur egun ez dira erabiltzen
- c) Formulazioaren pHak farmakoaren disolbagarritasunean eragina dauka eta horren ondorioz bere dispozioan
- d) Erantzun guztiak okerrak dira